




Testua: Iñigo Astiz

Irudiak: Eider Eibar

Saila: Mila gau

Gaia: Bi trikuren istorio eta abenturak. Pentsatu eta aldi berean barre egiteko.

Nabarmenezkoak: Abenturak, adiskideak, dantza, musika, animalien mundua.

Adin egokia: 8 urtetik aurrera.

Paper azala | 17 x 17 cm | 64 or. | Salneurria: 12,00 €

ISBN: 978-84-9172-476-6



—Zer zabilta, Triku? —galdetu zion Kiñok.

—Tantak kontatzen —erantzun zion Triku, gabardina aztertzeari utzi gabe.

—Eta zertarako kontatzen dituzu gabardinako tantak? —jakin nahi izan zuen Kiñok.

—Ba, ea benetan euri asko egin duen jakiteko. Zertarako bestela?

Triku dantzaldi batera gonbidatu dute, baina ez daki dantzatzeko, eta oso kezkatuta dabil horregatik. Laguntzeko, Kiñok entsegu moduko bat antolatzen dio etxean, baina pixkanaka lagunak gerturatzeko hasiko dira, eta, oharkabea, benetako dantzaldi bat bilakatuko zaie festa azkenerako. Trikuren lehen dantzaldia, hain zuzen ere.


Kiñok etxe ondoko bidegurutzea maite du. Han agurtu ditu hirira doazen saguak, zingirara doan igela, baita ahate haztegitik ihesi doan ahate bat ere. Kartelak ere jarri ditu bide bakoitzaren norabidea argitzeko, eta halaxe egin du eguna poztuko dion deskubrimendua: mundu osora hel daiteke bidegurutze horretatik, eta, era berean, mundu osotik heldu daiteke bidegurutze horretara. Mundu osoa dute, eta hori zortea, etxetik metro gutxira!

Iñigo Astiz (Iruñea, 1985)

Euskal kazetari eta poeta. Hainbat poema liburu eman ditu argitaratu. Umeentzako *Joemak eta polasak* (Elkar) poesia liburu ateratakoa. Maite Mutuberriaren ilustrazioek laguntzen dute azken hori, eta Euskadi Saria jaso zuen. Haren poemak hainbat antologiatan bildu dituzte, eta *Kixotenean* (Elkar) kronika liburuaren egilea ere bada (Rikardo Arregi Kazetaritza Saria). *Haserre* (Ikaslar), *Kixkur* (Elkar) eta *Zizare ia-ia hegalaria* (Elkar) liburuak ere sortu ditu, Leire Salaberria eta Mikel Valverde ilustratzaileekin batera, eta Sylvia Plathen *Ariel eta beste poema batzuk* liburu eta Sandro Pennaren poemak biltzen dituen liburu bat ere itzuli ditu. Azken lan horrek, gainera, Damaris Pan artistaren margolanak ere baditu. Eñaut Elorrieta, Jabier Muguruza, Gari eta lehen lerroko hainbat euskal musikarientzako letrak ere idatzi ditu, eta haren zuzeneko poesia emanaldiek ere harrera ona izan dute.

Eider Eibar (Bilbo, 1980)

Arte Ederretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean eta Animazio masterra burutua Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean. 27 urte daramatza Haur eta Gazte literaturako ilustratzaile profesional izanez eta 85 liburutik gora ilustratu ditu. 16 urtez irabazi du haurrek bozkatzeko duteen JUUL ilustrazio saria. 2018 urtean kokoak.eus ataria jarri zuen martxan, sorkuntza, ilustrazioa eta irudimenari buruzko proiektua.





—Ba, ez dakidalako dantzatzan — erantzun zion Triku, lotsaren lotsaz, ia-ia xuxurlaka. Irribarre txiki bat sortu zitzaion Kiñori.

—Lasai, Triku —esan zion lagunari—. Nik erakutsiko dizut.

—Benetan? —alaitu zen Triku.

—Noski! Dantzari bikaina naiz! —esan zion Kiño.

—Eta orduan ez dut inor... Ez dut inor... zapalduko? —galdetu zion Triku kezkatuta.

12



—Inolaz ere ez! Dantzaldiko dantzaririk onena izango zara—ziurtatu zion—. Ia-ia hegan ibiliko zara, ikusiko duzu!

Animatu egin zen Triku hegan egitearen kontu horrekin. Lagunak esandakoei lasaitu, eta bat-batean hain sentitu zen arin, ohartzerako, txorten eta guzti, oso-osorik amaitu baitzuen aurrez plateran ukitu gabe utzitako sagarra.

—Bikaina zegoen, Kiño! —eskertu zion Triku—. Beti bezala, puntu-puntuan.

13

Musika



Ganbaratik disko jogailu bat jaitsi zuen Kiñok afalostean. Arreta handiz aukeratu zuen musika, eta, gero, lehen akordea hastearekin batera hasi zen lagunarentzat dantzan.

—Ikusten duzu? Oso erraza da. Kontatu, kontatu nirekin... Bat, bi-hiru, bat, bi-hiru, bat, bi-hiru... Dantzari abila zen Kiño.

Aulkian eserita, begira-begira egon zitzaion Triku denbora batez. Tarteka txalo ere jotzen zuen hura animatzeko.

14

Baina ez zuen dantzarik egin.

Hori ikusirik, topera jarri zuen disko jogailuaren bolumena Kiñok. Haran osora zabaldu zen haren hotsa.

Baina bat-batean, lehengo aurpegiera serio bera itzuli zitzaion Trikuri.

Kiñok ezin zuen ulertu zergatik. Segundo bat lehenago hain zegoen alai eta bat-batean penatu egin zen berriz ere.

Zer gertatu ote zitzaion?

Dantztazeari utzi, eta berriz ere laguna animatzen saiatu zen Kiño.

—Triku, berriz tristetu zara? —galdetu zion.

—Ez, ez da hori —erantzun zion Triku—. ez nago triste.

—Eta orduan zer duzu?

—esan zion Kiñok.

—Ez al duzu entzun?

—galdetu zion Triku.



15



Kiñok eserlekutik altxatu zuen laguna, eta besteengana gerturatu ziren elkarrekin.

Inguruko mugimendu xume batzuk imitatzen hasi zen Triku hasieran, baina lotsa galdu ahala, gero eta biziagoak ziren haren keinuak ere, eta lagunekin bat egin zuen azkenean.

—Ongi, Triku! —animatu zuen Muxarrak.

—Dantzari bikaina zara! —esan zion Erbiak.

—Primeran ikusten zaitut! —bota zion Satorrak.

Eta dantza eta barre, barre eta dantza, ia egunsentiraino luzatu zitzairen festa.

Zeruan argi izpi ahul batzuk sortu ziren, eta elkar agurtzeko ordua gertu zela esan nahi zuen horrek.

28

29